

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure diskotekan gehien zaintzen dugun gauzetako bat originaltasuna da, hau da, lokala baldintza onetan eta ondo apainduta edukitzea gazteak erakartzeko eta eroso sentitzeko. Hortik dator diskoteka bat birsortu eta barruan igerileku bat sortzeko ideia. Puntu positibo asko emango dizkigula uste dugu, diskoteka oso gutxi edo ia batek ere ez baititu gure lokalean ditugun zerbitzuak. Hau da gure bereizgarritasuna eta funtsezkoa da balio hori eskaintzeko, diskotekaren diseinua eta igerilekuaren integrazio egokia ezinbesteko arloak dira.

Gure partaidetza negozioan behar-beharrezkoa da, bakoitza arduratuko baita lokalaren alderdi eta beharizan batetaz. Mikel arduratuko da segurtasunaz, berak bermatuko du diskoteka ahalik eta segurtasun handienez mantentzen dela eta ASLE segurtasun enpresarekin harremana estua izango du. Adrian eta Miguelek, alde batetik, diskotekaren koordinazioaz eta plangintzaz arduratuko dira, eta, bestetik, hornikuntzaz, eta prestaketez ere arduratuko dira, adibidez, DJa eta edarien horniketaz. Azkenik, Julio diskotekaren kontabilitatea eta administrazioaren arduraduna izango da. funtsezkoa ,moti

Gure diskoteka aurrera atera ahal izateko, ezinbesteko finantza iturriak behar izan ditugu. Inbertsio oso handia izan da, bai bazkideen ekarpenetatik zein kanpo finantziaketatik lortutakoa. Ezinbesteko baliabideak behar izan ditugu lokala erosi eta egokitzeko.